

Justa Madinabeitia Urrutia

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1924-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Meatzerreka auzoko Etxebarri baserrian jaio zen 1925ean. Aita Etxebarrikoa bertakoa zen eta ama Aramaioko Gantzaga auzoko Garratz baserrikoa. Hamaika hilabete besterik ez zituen egin eskolan. 1935. urtean amandrea hil eta eskolak bukatu ziren. Bere etxera, Etxebarri baserrira, ezkondu zen Elorrioko Iguria auzoko Uhalde baserriko Maximo Gallastegirekin eta bertan bizi izan da beti. Hiru seme-alaba izan dituzte.

Zintak

ARR-074

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-19
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Eskolan hamaika hilabete bakarrik

- **Erref:** ARR-074/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Justa jaio aurretxoan hil zen aita. Eskolan hamaika hilabete besterik ez zituen egin. Arrasateko Ascensionista mojen eskolan ibili zen, Sor Carmen maistra gernikarrarekin. Amandrea hil zitzaionean eskola utzi eta handik gutxira gerra hasi zen.

2. Gerran etxetik ihesean

- **Erref:** ARR-074/003
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Zazpi ganadu bururekin, milizianoek Udalako mikeleteen etxera eraman zituzten bera, ama eta izeba. Handik Elorriora, osaba baten kale-baserri batera joan ziren. 1937ko urtarrilean etxetik irten eta urte bereko San Prudentzio egunean itzuli ziren.

3. Etxera itzuli zirenean

- **Erref:** ARR-074/004
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Etxea hondatuta zegoen, oiloak eta beste lapurtuta, baina hil eta gero lurpean sartuta utzi zuten txerria ondo kontserbatu zen. Hamaika komeria eta gero, eraman zizkieten hiru behiak berreskuratu zituen amak.

4. Etxera sartzeko baimena eskatu behar

- **Erref:** ARR-074/005
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Elorrion Arrasatera joateko salbokonduktoa eman zieten, eta Arrasaten etxera itzultzeko beste bat eskuratu behar izan zuten. Izeba, ama eta Justa bera bakarrik zeuden etxean. Teilatuko bala-zuloak konpondu behar izan zituzten lehenbailehen.

5. Gerra denborako miseriak

- **Erref:** ARR-074/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:15:38. **Bukatu:** 00:17:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Elorrion esnea saltzen zieten milizianoek. Baina handik ekarritako dirua Arrasaten entregatu behar izan zuten. Garirik erein gabe geratu ziren, eta ganaduekin bakarrik aurrera egin behar. Elorrion denentzat zegoen errazionamendua, baina Arrasaten ez.

6. Baserria ordaintzen lanak

- **Erref:** ARR-074/007
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserria erositara baina zatika ordaintzeko zegoen. Justa ezkondu zenean bukatu zituzten ordainketak. Justa etxera ezkondu zen, Elorrioko Iguria auzoko Uhalde baserriko Maximorekin.

7. Meza Arrasaten, baina dantza Kanpazarren

- **Erref:** ARR-074/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Umetan jolaserako denbora askorik ez zuten izaten, lana egin behar zelako. Meza entzutera kalera joaten ziren. Arratsaldean Kanpazarrera joaten ziren, han sarritan egoten zelako auzoko soinu-jotzaile batek alaitutako erromeria.

8. Garia ehotzera Elorriora

- **Erref:** ARR-074/009
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Justa ezkondu zenean hiru behi zituzten etxean, txerri eta enparauekin. Garia eta artoa ehotzera Elorriora eramaten zuten estraperloan, Arrasatera eramanez gero, erdiarekin errotaria geratzen baitzen. Gari, arto, patata eta arrautza kupoa eman behar izaten zitzaion Udalari.

9. Esnea saltzen zuten kalean

- **Erref:** ARR-074/010
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Izeba bere baserrira itzuli zenean, ama-alabak geratu ziren etxean, osaba baten laguntza apur batekin. Esnea eramaten zuten kalera. Bezero bati kafearen truke ematen zioten esnea.

10. Abioien erasoetatk ihesi

- **Erref:** ARR-074/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Elorrion, abioiek erasotzen zutenean, elizan edo beste soto batzuetan babesten ziren. Elorrioko jendeak asko lagundu zien ganaduak zaintzen eta gobernatzen.

11. Gerran hildakoak

- **Erref:** ARR-074/013
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:38:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Elorriar gehienek senideren bat frontean zuten. Gerran hildakoak ikusten ziren bide bazterretan. Ermandadeak ez zuen ordaindu gerran galdutako ganaduagatik.

12. Ura eta argindarra

- **Erref:** ARR-074/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:38:18. **Bukatu:** 00:41:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Salturri baserri ondoko iturri batera joaten ziren arropak garbitzera. Etxerako ura ere bertatik ekartzen zuten astoan. Argindarra auzoko errotatik zetorren. Karburua eta kandelak ere erabiltzen zituzten. Lehenengo irratia ezkondu eta gero izan zuten. Radio Vitoria eta Radio San Sebasti&aaacute;n bakarrik entzuten zituzten orduan.</p>

13. Lehen jaunartze osoa

- **Erref:** ARR-074/015
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:41:33. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Arrosarioa ez zuten errezatzen. Amonak irakatsitako dotrinarekin egin zuen lehen jaunartzea. Bederatzietan jaunartzea, hamarretan meza nagusia, kalean bazkaldu eta arratsaldean bezperetara joan zen egun hartan.</p>

14. Baserriaren historia

- **Erref:** ARR-074/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:46:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Osaba bat kalean ezkondu zuen. Bere Aita Udala auzotik etorritakoa zen eta ama etxekoa bertakoa. Baserria birraitonak eraiki zuen; eraiki eta saldu, berriz erosteko eskubidearekin. Justaren aitak erosi zuen berriro.</p>

15. Justaren jatorria Zaldibiatik omen dator

- **Erref:** ARR-074/018
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zaldibiatik Meatzerreka auzoko Arremena baserrira etorritako artzain baten ondorengo dela dio Justak. Artzain horren familia nola eta nora zabaldu zen azaltzen digu.

16. Santa Ageda jaiak; jaunartzea

- **Erref:** ARR-074/021
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:55:27. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Santa Agedako jaietan Arrasateko lantegietan jai izaten zen. Erromeria jendetsua ospatzen zen. Amonak etxean irakatsi zion dotrina, euskaraz, eta abade-etxera joan zen ikasitakoa parrokoak azter zezan. Lehen jaunartzea euskaraz izan zuen. Parroko hura, gerran fusilatu zuten.</p>

17. Herrietako jaietara

- **Erref:** ARR-074/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:00:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Aretxabaletako Andra Marietara, Oñatiko Arrosario jaietara eta San Antonioetan Urkiolara ere joaten ziren.</p>

18. Senarra non ezagutu zuen

- **Erref:** ARR-074/024

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:25. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Frantziaren erasoan beldur, Francok kintak altxatu zituen 1942ko azaroan. Mobilizatu aurreko egunean senarra izango zena ezagutu zuen Justak Kanpazarren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com